

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

10.902 metrorainoko itsas hondoa

OZEANO BAREAN dagoen Marianen Hobia ospetsua da, ustez han dagoelako mundu osoko itsas-azpiko sakonerarik handiena. Duela gutxi, *Nereus* ibilgailu robotikoa 10.902 metroko sakoneraraino jaitsi da bertan. Orain arteko ibilgailuen artean *Nereus* izan da sakonera handienara heldu dena; horrek bide berriak zabaldu ditu itsas hondoen esplorazioan.

Sakonera handietan dagoen presioak ezinezko egiten du gizakien presentzia eta ibilgailu ez-tripulatuak dira, oraingoz, bertara iristeko dugun aukera bakarrenetakoa.

Nereus-ek bi gidatzeko era ditu, bata mikrozuntz optikoa duen kable bidezko gidaketa, eta gidaketa autonomoa. Orain arteko jaitsieretan ibilgailuak ez du kalterik izan eta horrek asko poztu ditu ikerlariak. Itxaropena dago laster itsas-hondoko irudiak izango ditugula ikusgai; seguru harrigarriak izango direla.



Goian, Mariana Uharteak; haien inguruan dago ezagutzen den itsas sakonerarik handiena. Eskuinean, *Nereus* ibilgailuaren irudi bat.



Makakoak, gutxiago janda luzeago bizi

Tximinoekin egindako ikerketa batean antzeman dutenez, kaloria gutxiago jaten zuten banakoek bizi hobeagoa eta luzeagoa izan zuten. 76 makakorekin egin dituzte probak, azken hogeitazehar. <http://ttiki.com/5048>

Tifoiek lurrikara geldoak sortzen dituzte

Zientzialari talde batek frogatu egin du Taiwanen ekialdean gertatzen diren tifoiek lurrikara geldoak sortzen dituztela. Lurrikara horietan energia pixkanaka askatzen da, eta horregatik ez dute eragin handirik izaten. <http://ttiki.com/5049>

Gero eta argiago dago nola eratzen den dortoken oskola

KOBE HIRIAN (Japonia) dagoen RIKEN zentroan, Shigeru Kuratani ikerlariak zuzentzen duen ekipoak hiru espezieen enbrioien eboluzioa aztertu du, dortoken oskola nola eratzen den jakin nahian. Hain zuzen ere, dortoka, oilaskoa eta saga izan dira aztertutako espezieak.

Dortoka enbrioia hamaika egun dituenan, oskola izango denaren egituraren aztarna azaltzen da bizkarraldean. Beste animalien enbrioietan toraxa izango dena osatzen hasten den bitartean, dortokaren kasuan saihetsen garapena oso baldintzatuta dago omoplatoarengatik; hark saihetsak blokeatu eta atzeko aldera bultzatzen ditu. Horrela saihetsak elkartu eta luzatu egiten dira, oskola eratuz. Beraz, aztertutako hiru espezieetan hezurak eta muskuluak ordena berean osatzen dira; hazkundearen norabidea da aldatzen den gauza bakarra.

Beste mundu batzuetako bizi-aztarnen bila

La Palma uhartean dagoen Kanarietako Astrofisikako Institutuko ikerlariak ikusi dutenez, zenbait egoeratan behatuz gero Lurraren atmosferak emititzen duen argiak informazio garrantzitsua du beste planetetako bizi-aztarnen buruz. <http://ttiki.com/5050>



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16